

KARMELE IGARTUA

sorkuntza beka 2023

XIII. edizioa



Antolatzaileak



Aretxabaletako
Udala

www.aretxabaleta.eus
www.idazten.com

**HAUR ETA GAZTEENTZAKO
ANTZERKIA / GIDOIA**

OINARRIAK

PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.

LANAK

Antzerkiak edo gidoiak euskaraz idatzita egongo dira.

Parte-hartzaile bakoitzak baldintza hauek beteko dituen lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

- Lana originala izatea, ez da onartuko itzulpenik.
- Lerro arteko tartea 1,5koa izatea.
- Lanak 20-30 orrialde tartean izatea.
- Inongo konpainiak –profesionala izan ala ez– antzeztu gabea izatea.
- Zortzi urtetik 16 urtera bitarteko ikasleek antzezteko modukoa izatea.
- Antzezpeneraren iraupena 30 minutu ingurukoa izatea, gutxi gorabehera, eta inola ere ez, 40 minutuz gorakoa.
- Gidoia aurkeztuz gero garapeneraren iraupena 15 minutu ingurukoa izatea, eta inola ere ez 30 minutuz gorakoa.

GAIA

Gaia librea izango da.

AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke.

Posta arruntez

- Helbide honetara bidaliko dira: **Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta**
- Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutun-azal baten barruan. Gutun-azalaren kanpoko aldean, helbidearen gainean, hau adieraziko da: **Kultura: Karmele Igartua Beka. 2023: Eskola antzerkia - Haur eta Gazteentzako gidioa.** Ale bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.
- Gutun-azal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutun-azal itxi bat sartzea (plika). Gutunazal horren kanpoko aldean gidoiaren izenburua bakarrik jarriko da, eta barruan datu hauek:

- Egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta jarraian, curriculum laburra.
- NAN edo pasaportearen fotokopia.
- Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa dela eta argitaratu edo estreinatu gabea, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
- Halaber, egileak berariak aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

Posta elektronikoz

- Lanak kultura@aretxabaleta.eus helbidera bidaliko dira.
- Mezuaren gaia: **Kultura: Karmele Igartua Beka. 2023: Eskola antzerkia-Gidoia**
- Lana PDF formatuan aurkeztuko da, eta PDFaren izena gidoiaren izenburua izango da.
- Beste artxibo batean, posta arrunterako eskatu diren datu berberak idatziko dira.

Antolatzaileek idazlanak soilik bidaliko dizkiete epaileei, egileen anonimotasuna gordetzeko.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko azken eguna: 2023ko abenduaren 3a

HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du. Erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko da.

Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahaia irabazlea aukeratu du. Erabakia 2023eko abenduaren 31a baino lehen jakinaraziko da.

SARIAK

Irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du. Kopuru horretatik, aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da.

Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaia hala erabakitzen badu.

JABETZA

Lan irabazlea Aretxabaletako Udalaren eta Bergarako Idazle Eskolaren jabetzan geratuko da urtebetez. Erakunde horiek epe horretan bakarrik erabili ahal izango dituzte egile-eskubideak, eta grabatzea edo zabaltzea erabakiz gero, egilearen izena aipatuko dute.

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berarekin.